# KANPAINA CARITASEN, PASTORAL BARRUTIEN ETA PARROKIEN ALDE

## PASTORAL KURTSOAREN HASIERA: «BATERA»

2025EKO IRAILAREN 28A

**URTEAN ZEHARREKO 26. DOMEKA (C)**

## Liturgia lagungarriak

**Atarikoak:**

- Gogoratu ezinbestekoa dala lagungarriok alkarte bakotxaren gorabeheretara moldatzea luzera eta hizkerari dagokienez.
- Ondo legoke Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan eraginkortasunez parte hartzea.
- Egun egokia da gaurkoa, eukaristia liturgia beren-beregi zaintzeko: ogi eta ardaoaren aurkezpena eta altararen behealdean itziko dan kolektarena. Holan egiten bada, diru-batzearen arrazoiak azaltzeko oharra irakurri arte ez gara dirua batzen hasiko. Eukaristia otoitza nabarmendu gorespenak kantatuz, ogia era esanguratsuan zatitu "Jaungoikoaren Bildotsa" abesten dan bitartean, jaunartzea...

### HASIERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Domekero konbidatzen gaitu Jaunak, Eukaristiaren mahaian parte hartu eta batasun eta senidetasunezko zubiak eraiki daiguzan.

Kurtsoari hasiera emoten dihardugu, eleizbarrutiaren sorreraren 75. urteurrenean eta sinodo-seneko alkarte abegitsu, hau da, abegia, entzutea eta itxaropena, alkartasuna, partaidetza eta misinoa ahalbidetzen dituan alkarte izatera deitzen gaituan Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko seigarren Egitasmoa indarrean dala.

Domeka honetan, aldi berean, Caritasen, pastoral barrutien eta parrokien aldeko kanpaina be ospatzen da. Bizkaiko kristau alkartea osatzen dogun norbanako eta ekimenen aniztasunetik "bidea alkarregaz egitea" da xedea.

# CAMPAÑA DE CÁRITAS, UNIDADES PASTORALES Y PARROQUIAS

## INICIO DEL CURSO PASTORAL: «BATERA»

28 DE SEPTIEMBRE DE 2025

**DOMINGO 26 DEL TIEMPO ORDINARIO (C)**

## Subsidios litúrgicos

**Notas previas:**

- Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten en su extensión y lenguaje a las circunstancias de cada comunidad.
- Estaría bien que el voluntariado de Cáritas participara activamente en las celebraciones de hoy.
- Hoy es un día apropiado para cuidar especialmente la liturgia eucarística: la presentación del pan y el vino y también de la colecta, que se deja a los pies del altar. Si se hace así quizá convendría no empezar a hacerla hasta que se haya leído pausadamente la monición que la motiva. Destacar la plegaria eucarística con las aclamaciones cantadas, la fracción del pan significativamente hecha mientras se canta "Cordero de Dios", la comunión...

### MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Cada domingo somos invitados por el Señor a compartir la mesa de la eucaristía y crear puentes de unión y fraternidad.

Estamos iniciando el curso pastoral en la Diócesis dentro del 75 aniversario de su creación y seguimos en el sexto Plan Diocesano de Evangelización que nos invita a ser comunidades acogedoras, comunidades sinodales. Es decir, comunidades que favorecen la acogida, la escucha, la esperanza. Comunión, participación y misión.

Este domingo es, a la vez, la campaña conjunta Cáritas y parroquias. Se trata de "caminar juntos" desde la diversidad de personas e iniciativas que conformamos la comunidad cristiana en Bizkaia.

# KANPAINA CARITASEN, PASTORAL BARRUTIEN ETA PARROKIEN ALDE

Horregaitik, asteburu honetan batu daiten dirua, kurtso hasierak Caritasi zein pastoral barruti eta parrokiei dakartsezan gastuei aurre egiteko izango da.

Abestuz ekingo deutsagu ospakizunari.

## SARRERAKO ABESTIA

## ABADEAREN AGURRA

Aberats izanda, gu aberasteko behartsu egin zan Jauna, izan bedi zuekin.

## DAMU OTOITZA

Ospakizunaren hasieran, eskatu deiogun Jaungoikoari bihotz-barritzeko laguntza. (Isilunea)

- Gaitzespena eta bazterketa jasan zenduzana: Erruki, Jauna.
- Gurasoakaz batera, jazarpena eta erbestea ezagutu zenduzana: Kristo, erruki.
- Bihotz-barritzera deitzen gaituzuna: Erruki, Jauna

## OHARRA IRAKURGAIEI

Lehenengo irakurgaian, profetak bihotz-barritzeko deia egiten deutse, behartsuen duintasunaren kaltetan eta lagun hurkoa engainatuz, jaten, edaten eta ondo pasatzen aritzen diranei.

Bigarren irakurgaian, Apostoluaren esanetan, mundu honetako bidebakokeriei aurre egingo badeutsagu, ezinbestekoa da fedea sakontasunez bizitzea.

## JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Zabaldu deiegun gure bihotza gizon eta emakume guztien beharrizanei eta aurkeztu deiogun konfiantza osoz gure otoitza behartsu eta baztertuagandik hurran dagoan Aitari.

1- Gure Eleizbarrutiaren alde. Bizkaian erromes dan Eleiza Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko Egitasmoaz baliatu daitela alkarte ikasle eta misiolari lez hazteko. Eskatu deiogun Jaunari.

# CAMPAÑA DE CÁRITAS, UNIDADES PASTORALES Y PARROQUIAS

Así, la colecta de este fin de semana se destina a sufragar los gastos que genera el inicio de curso, tanto en Cáritas como en cada unidad pastoral y parroquia.

Iniciamos la celebración unidos en el canto.

## CANTO DE ENTRADA

## SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, que, siendo rico se hizo pobre para enriquecernos, esté con vosotros.

## ACTO PENITENCIAL

Al comenzar esta celebración, pidamos a Dios que nos conceda la conversión de nuestros corazones. (Instantes de silencio)

- Tú, que sufriste el rechazo y la exclusión: Erruki, Jauna / Señor, ten piedad.
- Tú, que con tus padres conociste la persecución y el exilio: Kristo, erruki / Cristo, ten piedad.
- Tú, que nos llamas a la conversión: Erruki, Jauna / Señor, ten piedad.

## MONICIÓN A LAS LECTURAS

En la primera lectura, el profeta llama a la conversión a quienes se dedican a comer, beber y pasarlo bien a costa, muchas veces, de pisotear la dignidad de los pobres y engañar al prójimo.

En la segunda lectura, nos dirá el Apóstol que, si se quiere hacer frente a las injusticias de este mundo, el único camino válido es vivir intensamente la fe.

## ORACIÓN UNIVERSAL

Abramos nuestro corazón a las necesidades de todas las personas y presentemos nuestra oración confiada al Padre que está cerca de quien es pobre y siente la exclusión.

1- Que, para la Iglesia que peregrina en Bizkaia, el Plan Diocesano de Evangelización sea un instrumento que la ayude a crecer como comunidad discípula y misionera. Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.

# KANPAINA CARITASEN, PASTORAL BARRUTIEN ETA PARROKIEN ALDE

2- Caritasen alde. Eten barik jardun daian axolagabekeriari aurre egiten deutsan eta bazterketaren biktima diran duintasun eta eskubideak autortzen dituan gizarte ereduaren alde. Eskatu deiogun Jaunari.

3- Behartasunean dagozanen alde. Pobreak, ahaztuak, baztertuak eta indarkeria jasaten dabenak ez daitezala sekula bakarrik sentitu, guregan abegi, laguntza eta duintasuna aurkitu daiezala eta itxaropenean bizitzeko aukera izan daiela. Eskatu deiogun Jaunari.

4- Gu guztion alde. Ez dakigula bihotza gogortu eta sentiberatasunez erantzun deiogula Jainkoak mundu honetako behartsuen bidez egiten deuskun deiari.

Pobreari bere izenez deitzen deutsazun Aita Jaungoikoa, entzun gure otoitzak eta emon indarra besteen preminez jabetuta bizitzeko. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

## OHARRA CARITAS, PASTORAL BARRUTI ETA PARROKIENTZAKO DIRUA BATU AURRETIK

Ondasunen banaketak islatzen dau alkartearen senidetasuna eta bizitasuna. Gaur batu daiten dirua Eleizbarrutiko Caritasi eta alkarte honi laguntzeko izango da. Diru-laguntza horri esker, askotariko jarduerak garatuko dira. Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzeagaitik.

## BEDEINKAPENA ETA BIALKETA

*Egokitzat jo ezkero, jaunartze osteko otoitzaren ostean pertsonen bialketa egin lau egitekoetara: iragarpena, ospakizuna, karitatea eta alkartasuna. Zurik jarriko dira misinorako bialketa jasoteko. Ospakizun-buruak esango dau:*

Parrokian bizi dogu gure fedea. Horregaitik, nahiz eta egun honetan gogoratu, urte osoan eskatzen jaku etxe honetako kide sentitzeko. Gure ahalmenaren arabera, gure aukera eta inguruabarrak kontuan hartuta, parte hartzeko dei egiten jaku, denpora, gaitasunak, otoitza edo diru-laguntza eskainiz. Alkarte abegitsua, gertukoa, batua, alaia eta itxaropenez betetakoa izan gura dogu.

# CAMPAÑA DE CÁRITAS, UNIDADES PASTORALES Y PARROQUIAS

2- Que Cáritas no se canse nunca de trabajar por un modelo social en el que se plante cara a la indiferencia y se reconozcan la dignidad y los derechos de quienes son víctimas de cualquier discriminación Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.

3- Que las personas pobres, olvidadas, excluidas y quienes sufren violencia nunca se sientan solas y encuentren en nosotros acogida, apoyo y dignidad y así puedan tener motivos para la esperanza. Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.

4- Que no se endurezca nuestro corazón y seamos sensibles a la llamada de Dios a través de los pobres de este mundo. Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.

Dios Padre, que llamas por su propio nombre al pobre, escucha nuestras oraciones y danos fuerza para vivir atentos a las necesidades de los demás. Por Jesucristo, nuestro Señor.

## MOTIVACIÓN A LA COLECTA PARA CÁRITAS Y PARROQUIAS

La comunión de bienes debe ser expresión fraterna y signo de vitalidad de la comunidad. La colecta de hoy será destinada a Cáritas Diocesana y a las necesidades de esta comunidad. Apoyo económico que permite el sostenimiento de las diferentes acciones desarrolladas. Gracias a todos por vuestra generosidad.

## BENDICIÓN Y ENVÍO

*Donde parezca oportuno hacerlo, después de la oración después de la comunión las personas enviadas a las cuatro tareas: anuncio, celebración, caridad y comunión, se sitúan de pie para recibir el envío a la misión. El presidente, dice:*

En la parroquia encontramos nuestro hogar de fe. Por eso durante todo el año, aunque lo recordamos especialmente en este día, se nos pide que nos sintamos parte de ese hogar al que pertenecemos. Se nos llama a participar de la forma en que podamos, cada uno según sus posibilidades y sus circunstancias: con su tiempo, con sus cualidades, con su oración, con un donativo. Deseamos ser una comunidad acogedora que está próxima, unida y alegre desde la esperanza.

# KANPAINA CARITASEN, PASTORAL BARRUTIEN ETA PARROKIEN ALDE

Eleizan bere egitekoaren lau alderdietan -iragarpena, ospakizuna, karitatea eta alkartasuna- barne hartzen dauan aniztasuna buztartu eta azpimarratu gura dogu. Eginkizun horretara bialduko zaituegu orain Eleizaren izenean.

*Bialduko diranen gainean eskuak luzatu eta esango dau:*

Egin daigun otoitz.
Arren eskatzen deutsugu, Jauna,
egitekoa bialtzen doguzan ahai-arreba honeen gainera zuzendu daizula zure begirada onbera.
Gidatu euren urratsak,
sendotu eizuz zeure onginahiaz etsipenean jausi ez daitezan.
Euren hitz eta ekintzak kristoren hitz eta ekintzen agerpen izan daitezala.
Isuri euren bihotzera Espiritu Santua
Lagun asko erakarri daien Zuregana,
etenbarik goratu zaiezan zeure Eleizan.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Eta bedeinkatu daiezala Jainko ahalguztidunak
Aita, Semea eta Espiritu Santuak.

## ABADEAREN AGURRA (BEDEINKAPENAREN OSTEAN)

Amaitu da ospakizuna. Orain, guk daukaguna gitxien dabenakaz erdibanatzeko aukerea dogu. Zoaze Jaunaren bakean!

# CAMPAÑA DE CÁRITAS, UNIDADES PASTORALES Y PARROQUIAS

Hemos de integrar y poner en valor toda la diversidad que la Iglesia acoge en las cuatro dimensiones de su misión: anuncio, celebración, caridad y comunión. A esta misión os enviamos ahora en nombre de la Iglesia.

*Extiende las manos sobre quienes son enviados y dice*:

Oremos.
Te pedimos, Señor,
que dirijas tu mirada bondadosa
sobre estos hermanos y hermanas que enviamos a la misión.
Guía sus pasos,
fortalécelos con tu gracia para que no los venza el desánimo.
Que sus palabras y obras sean un reflejo de las de Cristo.
Infunde en sus corazones el Espíritu Santo
para que atraigan a muchos hacia ti,
que te alaben sin cesar en tu Iglesia.
Por Jesucristo nuestro Señor.

Y la bendición de Dios todopoderoso,
Padre, Hijo y Espíritu Santo
descienda sobre vosotros.

## DESPEDIDA DEL PRESIDENTE (DESPUÉS DE LA BENDICIÓN)

Hemos concluido nuestra celebración, y continúa siempre la posibilidad de compartir con quienes menos tienen. Podéis ir en paz.